



2023/2024 denboraldia

## **25. ZIRKULARRA (2024-01-16an EGUNERATUA)**

\*2024ko urtarrilaren 16an 2. puntuako B atala aldatu da, ZUMAIAKO FTak 2023ko urriaren 24an txapelketan jolasteari uko egin ondoren.

### **EMAKUMEZKO KADETEEN 1. MAILAKO LIGA TXAPELKETA**

Gipuzkoako Futbol Federazioak aurtengo denboraldiko Emakumezkoen Kadeteen 1. Mailako liga txapelketa honela antolatu du:

#### **1. KLUB PARTAIDEAK**

##### **GRUPO 1 MULTZOA**

- 1 GURE TXOKOA K.K.E.
- 2 HONDARRIBIA F.E
- 3 MARIÑO REAL UNION "B"
- 4 OIARTZUN K.E. "B"
- 5 TOURING C.D. "B"
- 6 INTXAURDI K.E. "B"
- 7 USURBIL FT "B"
- 8 ARRUPE CHAMINADE C.D.D.F.

##### **GRUPO 2 MULTZOA**

- 1 INTXAURDI C.D. "C"
- 2 USURBIL FT
- 3 URNIETA C.D.
- 4 OSTADAR S.K.T.
- 5 ANTIGUA LUBERRI K.E.
- 6 ANTIGUOKO K.E. "B"
- 7 AÑORGA K.K.E "B"
- 8 HERNANI C.D.

##### **GRUPO 3 MULTZOA**

- 1 GOIERRI GORRI F.K. "C"
- 2 GOIERRI GORRI F.K. "D"
- 3 AIZKORRI GOIERRI F.T.
- 4 AIZTONDO NESKIDE K.KLUBA "B"
- 5 TOLOSA C.F. "B"
- 6 MONDRAGON C.F. "A"
- 7 BERGARA K.E.

##### **GRUPO 4 MULTZOA**

- 1 ZARAUTZ K.E. "B"
- 2 MONDRAGON C.F. "B"
- 3 GOIERRI GORRI F.K. "B"
- 4 AMAIKAK BAT K.E.
- 5 MUTRIKU F.T.
- 6 ZUMAIAKO F.T. "B"
- 7 LAGUN ONAK C.D.

#### **2. LEHIAKETA SISTEMA**

Emakumezkoen Kadeteen 1. Mailako liga txapelketa **30 taldek** osatzen dute 8 taldeko bi multzotan eta 7 taldeko 2 multzotan banatuta. Bi fasetan jokatuko da: puntuen bidez eta bi itzulietara (14 jardunaldi), eta Euskadiko Futbol Federazioaren Araudi Orokorrean jasotako xedapenak jarraituko dira.



### **A.Igoera Fasea:**

Multzo bakoitzeko lau sailkatuak (4x4=16), 16 talde guztira, 8 taldeko bi multzotan banatuta, itzuli bikoitzera, igoera fasea jokatuko dute (14 jardunaldi).

Maiatzaren 26an, multzo bakoitzeko lehenak Kadete 1. Mailako txapelduna zehazteko finala jokatuko dute, partida bakarrera eta zelai neutralean.

Maiatzaren 26an eta ekainaren 2an Ohorezko Mailara igotzeko kanporaketak jokatuko dira 3. postuan sailkatu direnen artean.

Emakumezkoen Ohorezko Kadete Mailara igoko dira goragoko mailako beste batekin mendekotasun- edo filialitate-harremanik ez duten lau taldeak. Dagokion zirkularrean jasoko da horien zehaztapena.

Hurrengo sailkatuek, beharrezkoa izanez gero, Emakumezkoen Ohorezko Kadete Mailan egon daitezkeen hutsuneen lehenetsuneko ordena zehazteko kanporaketak jokatuko dituzte, erregelamendu bidez zehaztuko diren modu eta baldintzetan.

Bere garaian Gipuzkoako Futbol Federazioaren Batzar Nagusian kategoría horiei eragiten dien koltxoi kategoriari buruz ezarritako akordioari eusten zaio.

Bi multzotan edo gehiagotan osatzen diren kategorietan, mailaz igotzeko edo mailari eusteko eskubideak sailkapen postu bera bete duten taldeen artean jokatuko dira. Hau da, lehenengoak, bigarrenak, hirugarrenak eta horrela, hurrenez hurren, beste multzoko sailkapen postu bera betetzen duten taldeekin jokatuko lituzke partidak.

«Koltxoi» kategoriari buruz indarrean dagoen akordioa errepikatzen da, kategoría horretan sortzen diren behin-behineko plazak txandaka eta hurrenkera honetan betetzeko:

- A) Kadeteen 1. Mailako igoera lehenetsiz.
- B) Kadeteen Ohorezko Mailatik jaitsi direnen artean, ondoen sailkatuta zegoen taldearen jaitziera saihestuta.
- C) Eta horrela hurrenez hurren.

### **B.Gipuzkoako Kopa:**

Gainontzekoek, 13 taldeek, Gipuzkoako Kopa jokatuko dute, multzo bakarrean banaturik eta itzuli bakarrera (13 jardunaldi). Multzoko lehen 4 sailkatuek finalerdiak jokatuko dituzte 2024-05-19an (1 vs 4 eta 2 vs 3) eta finalerdia irabazten dutenek finala jokatuko dute zelai neutroan 2024-05-26ean.



### **3.ADINAK**

Txapelketa honetan 2007., 2008. eta 2009. urtean jaiotakoek har dezakete parte.

### **4.LIZENTZIAK**

Inskribatutako taldeek gehienez 25 lizentzia izan ahalko dituzte, "FA", "FJ" eta "FC" lizentziei dagozkienak; azken kasu horretan, 15 urte beteta eduki beharko dira. Lehen taldean izena emanda dauden "FJ" eta "FC" lizentziadun jokalariek ezingo dute beren lizentziari dagokion taldean jokatu, hau da, jubeniletan edo kadeteetan.

### **5.BALOIA**

Baloia 5 zenbakiduna izango da.

### **6.IRAUPENA ETA ALDAKETAK**

Partidak 80 minutuko iraupena izango du, zazpi aldaketa egin ahalko dira, gehienez 5 leihotan, eta gehienez zazpi ordezko egongo dira aulkian.

### **7.ORDUTEGIA**

Klub antolatzaileek posible izango dute beraien partida larunbat goizera edo arratsaldera aurreratzea aurkakoaren baimenik gabe.

### **8. JOKALARI INFANTILEN PARTE HARTZEA KADETE MAILAN**

"Azken urteko infantilek kadete mailan izena eman eta parte hartu ahal izango dute, honako irizpide hauek bete ondoren:

- Gipuzkoako Foru Aldundiari egindako eskaera arrazoitua, proposatutako jokalarien zerrenda zehatzarekin.
- Foru Erakundearen baimena, eskolarretako infantilek kadete mailako lehiaketetan parte har dezaten.

Emakumezkoen Infantil F-11ko haur batek parte hartu dezake kadete kategorian (lehiaketa federatua).

Lehengo Kadete mailako talde bat osatzeko. Gehienez, infantil mailako 4 jokalaria baimentzen dira edo 18 jokalariko gutxienekoa osatu artekoak

- Azterketa medikuaren ziurtagiria aurkeztea.



- Mutualitatean afiliatuta egotea.
- Dagokion federazio-lizentzia tramitatzea

## **9.PARTE HARTZE BIKOITZAREN ARAUZKO ONDORIOAK**

Aurreko puntuan deskribatutako baldintzak beteta, infantilen azken urteko jokalariek goragoko hurrengo kategorian parte hartu ahal izango dute, baina infantilen taldean lerrotatze desegokiaren okerra egingo da, asteburuan bi partidatan parte hartzen badute, nahiz eta egun desberdinetan egin.

## **10.DIZIPLINA ARAUDIA**

Lehiaketa hau arautzeko Euskadiko Futbol Federakundeko Diziplina Araudia erabiliko da, eta sortzen diren gorabeheretan, lehenik Gipuzkoako Futbol Federazioko Diziplina Batzordeak erabakiko du, eta bigarrenik Euskadiko Futbol Federakundeko Apelazio Batzordeak.


## **11. BABES OROKORRA**

Zirkular honetan xedatutakoa aldatu egin daiteke denboraldian zehar ezinbesteko arrazoiengatik, eta, 2022ko ekainaren 27an Batzar Nagusiak berariaz eskuordetuta, Gipuzkoako Futbol Federazioaren Zuzendaritza Batzordeak izango du soilik lehiaketa gelditzea edo/eta lehiaketara itzultzea erabakitzeko eskumena, sortzen diren ezinbesteko arrazoiak kontuan hartuta; txapelketa denboraz luzatzea; lehiaketak pandemiaren amaierarekin bat etortzea, baita horrekin zerikusia duen beste edozein erabaki ere.

Zirkular honetan aurreikusitako ondorioetarako, ezinbesteko kausak egiaztatutzat joko dira lurralde jakin batean gobernu-araudi edo -agindu bat dagoenean, eta, hala badagokio, eskumena duen justiziak behar bezala abalata, kirol-jarduerak garatzea eragozten duenean, dela edozein mailatako entrenamenduak, dela lurralde horretan partidak jokatzea, dela muga horiek dituen alarma-estatua dekretatu izana.

**Donostia, 2024ko urtarrilaren 16a**

GIPUZKOAKO FUTBOL FEDERAZIOA  
FEDERACIÓN GUIPUZCOANA DE FUTBOL

  
Iñigo Letamendi Artetxe  
Idazkari Nagusia-Secretario General